

Definiziorako eta zehaztepenerako dokumentu honen bidez, auzoko beharren diagnostikoan markatutako puntuetan sakonduz, udal gobernuarekin elkartu eta haren aldeko adierazpen zehatza lortu nahi genuke; eta, era berean, proiektu hauek legealdi honetan zehar aurrera eramateko konpromezua hartzea.

Inola ere ez goaz eskaera gorenak egitera, are gutxiago, krisi larria den une hauetan eta, gainera, auzoaren egoeraren ardurarik ez duten egungo udal agintariei, aurreko legealdietan beste batzuk egin ez dituztiren gauzengatik kargu hartuz.

Baina, gauzak horrela izanik ere, hemen proposatutako helburuen aurrean jarrera definitu ahal dutelakoan gaude; izan ere, hauek lirateke bete beharreko gutxieneko puntuak, gure ustez, auzoa berregiteko eta bertako bizi-baldintzak hiriko gainontzeko auzoen parekoak izan daitezen.

Azpimarratu nahi dugu, egitura mailako gabezia nabarmen hauek, handiak eta sakonak izanik, hiri honek gure auzoarekiko izandako nolabaiteko utzikeriaren eta ahanzturaren seinale direla eta zor historiko hori kitatzeko garai aproposa izan daitekeela oraingoa.

Ikuspuntu errealista azaldu nahian, jorratutako gaien helburu nagusiak zein tartekoak markatu ditugu, berehalako ekinbide zatikatuak sustatzeko eta errazteko asmoz. Diru gutxien bahar dutenetik hasita, hurrenez hurren, atalka aurrera eraman ahal direlakoan gaude; eta, horrela, pausoka eta pixkanaka, azkenean gai bakoitzaren inguruko konponbide osoak lortu ahal izatea litzateke helburua.

Bestalde, ekinbideen progresiorako proposamen honi jarraituz gero, zera ahalbidetuko litzatekeke: atalka ekimenak burutuz hasieratik gure kaleetako gabezia larriei aurre egitea eta gure eguneroko bizimoduan eragin kaltegarria duten oztopo eta arazo horiek arinduz joatea.

Tarteko helburuen multzoa

Martutenerako finkatutako helburu nagusiak nahi baino gehiago luza eta atzera daitezkeela jakitun izanik, egungo diru arazoak tarteko direlarik, besteak beste, lanerako fase batzuk markatzea egokia iruditu zaigu, diagnostikoan adierazitako beharrei erantzuna pixkanaka emanaz aurrera egiteko.

Beraz, madu arrazionalen, diru gutxirekin eta azkar egiteko ekintzak proposatzen dira eta aldi berean, arazo garrantzitsuei eraten diotenak.

Lan arloak:

- 1. OSASUN-ETXEAREKIN OINEZKO LOTURA / BIDEGORRIA / ESPALLOIA**
- 2. GI-131 ERREPIDEA KALE BIHURTZEA.**
- 3. URUMEA**
- 4. PILOTALEKUA – AUZOKO ERDIGUNEA- .**
- 5. ELISEOREN ZELAIK**
- 6. AHT**
- 7. GIZARTEA ETA KULTURA**
- 8. ZUBIA ETA PASABIDEA**

1. OSASUN-ETXEAREKIN OINEZKO LOTURA / BIDEGORRIA / ESPALOIA

Azken helburua: Oinez eta bizikletaz lotura egokia eta sugurua lortzea Martutene eta Loiola artean. Auzoko ekipamenduetara (osasun-etxea, Renfe-ko geltokia...) iristeko oinarritzko bidea gauzatzea.

Tarteko helburuak:

- 1- Oinezkoentzako irisgarritasun eskaseko guneak edo puntu zailak berehala egokitzea: leundu gabeko espaloi ertzak, aparkaleku desegokiak eta oinezko pasabide nahiz semaforo falta.
- 2- Zorua altxatuta dagoen asfaltozko zatiak konpontzea.
- 3- Martuteneko zubia: motordun ibilgailuak errail bakarretik txandaka pasatzea eta beste erraila oinezkoentzat eta txirrindularientzat egokitzea.
- 4- Zorua eta espaloi-ertzak konpontzea Martutene Pasealekuko zubiaren inguruan.

2. GI-131 ERREPIDEA KALE BIHURTZEA.

Azken helburua: hiri barruko errepide zati bat kale bihurtzea, motordun ibilgailuen kopurua eta abiadura murrizteko. Trafikoarentzat Urumeako saihebidetaren alternatiba badago eta bide batez, auzoan sortzen duen oztopoa desegingo litzateke.

Tarteko helburuak:

- 1- Oinezkoentzako irisgarritasun eskaseko guneak edo puntu zailak berehala egokitzea: leundu gabeko espaloi ertzak, aparkaleku desegokiak eta oinezko pasabide nahiz semaforo falta.
- 2- Martuteneko zubia: motordun ibilgailuak errail bakarretik txandaka pasatzea eta beste erraila oinezkoentzat eta txirrindularientzat egokitzea.
- 3- GI-131 errepidean ibilgailuen abiadura murriztea (oinezko pasabideak eta semaforoak jarritz).
- 4- Kamioiei erdigunetik pasatzea debekatzea.
- 5- Proiektu bat diseinatzea eta prestatzea GI-131 abiadura mugatuko kale bihurtzeko, partekatutako zatiak dituen.

3. URUMEA

Azken helburua: Urumea ibaia Martutenerako mehatxu izan ez dadin lortzea eta bere natur balioak errespetatuz, aisialdirako eta atseginerako gune bihurtzea.

Tarteko helburuak:

1. Ibai arroaren eta ertzen berehalako garbiketa egitea, uholde arriskuak murrizteko.
2. Maiztasunez garbitzeko konpromezua.
3. Donostiako Udalak erakundeen arteko bitartekaritza egiteko konpromezua.
4. Ibaiaren balizko bideratze proiekturik balego, herritarren parte-hartze zehatzaren bidez onartua eta garatua izatea.

5. Ondo neurtutako konponbideak bilatzea auzoko eraikinen eta naturaren ondarea gordeko dutenak. Urumeako beste ingurune batzuean burutu diren bezalako panteamendu erasokorrak baztertzea, beti ere.
6. Aisialdirako guneak sortzea (kaia, atsedenlekuak, ibaiertzeko paseatokia...).
7. Diren landa-bideak identifikatzea, garbitzea eta markatzea, Urumearen ibarretik abiatuta inguruko nekazal guneak lotuz eta auzoko aisialdirako espazioaren osagarri.

4. PILOTALEKUA – AUZOKO ERDIGUNEA-

Azken heburua: kirol, gizarte eta kultura mailan auzoko beharrak aseko dituen topagunea sortzea. Aldi berean auzotarren erreferentzia izango den plaza edo biltokia eratu behar da erdigunean, orain oso sakabanatua eta antolatu gabea baitago.

Tarteko helburuak:

1. Eraikinaren eta haren inguruko espazioa antolatuko dituen oinarritzko proiektua diseinatzea, espazio publikoaren erabilera eta merkataritza guneak indartuko dituenak. Auzoaren erdigunea antolatzea (nukleoa).
2. Errepidean alde biak lotzen hastea, altxatutako pasabideak eta semaforoak jarritz.
3. Aparkalekuak antolaketa.
4. martuteneko erdigunean proiektu bat diseinatzea eta prestatzea GI-131 abiadura mugatuko kale bihurtzeko, partekatutako zatiak dituenak.
5. Auzoaren erdigune bat lortzea.

5. ELISEO ZELAIK

Azken heburua: Martuteneko arkitektura ondarearen parte eta erreferentzia historikoa den gune bat auzoarentzat berreskuratzea. "Agustindarren" eraikina auzoarekin lotutako erabileratarako baliatzea, herritarren elkarreraginerako espazio bihurtzeko helburuarekin.

Tarteko helburuak:

1. Eraikina inola ere botako ez den bermea.
2. Trenbidearen azpian dagoen oinezko pasabidea berregitea.
3. Eliseo Zelaien inguruaren oinarritzko egokitzapena hainbat erabilera aukera emanez: atletismorako gunea, skate-an ibiltzeko, jubilatuen dantzatoki, ...
4. Eraikinaren beheko solairua antolatzeko eta egokitzeko oinarritzko proiektua egitea, hainbat erabilera aurre ikusiz: tallerrak, kirol eta kultur ikastaroak, akademikoak, gimnasioa, balio anitzeko gelak, bestelako aretoak...
5. Balizko ekinbiderako programak herritarren parte-hartze zehatzaren bidez onartuak eta garatuak izatea.
6. Eraikinaren egokitzeko eta kudeaketarako behin betiko proiektua egitea, auzoaren (edo hiriaren) eta bertako talde eta kolektibo anitzen beharrak aseko dituen zenbait erabilera kontuan hartuz.

6. AHT

Azken heburua: Urumea ibarra babestea, izugarrizko eragina eta kaltea sor dezakeen azpiegitura honetatik (Txomin-Enea eta Loiola ere barne), lehendik ere azpiegitura handien eraginez oso kaltetuak izan diren auzoak direla kontuan hartuta.

Tarteko helburuak:

1. Informazio egiazkoa, zehatza eta etengabea izatea, gai honetan ematen ari diren erabakitze prozesuei buruz.
2. Ardura duten erakundeen aldetik kontuan hartuak izango diren parte-hartze bideak lortzea.
3. Martutenetik, Txomin-Eneatik eta Loiolatik Abiadura handiko Trenaren ibilbidea ez ezartzea. Edo behintzat ingurugiro eta kale mailako kaltea eta arrastoa ahalik eta arinena izateko neurriak hartzen direla bermatzea.

7. GIZARTEA ETA KULTURA

Azken heburua: Auzoko giroa piztea eta biziberritzea, gizarte, kultura eta merkataritza arloko ekimenak bultzatuz, auzotarrentzat benetako erreferentzia izango direnak.

Tarteko helburuak:

1. Euskararen erabilera bultzatzeko planak edo egitasmoak burutzea.
2. Auzoko merkataritza txikiaren sustapenerako egitasmoak sortzea.
3. Belaunaldi arteko kultur programazioak.
4. Jai batzordeari laguntzea.
5. Parte-hartze zuzeneko ekimenak abiaraztea edota berritzea.

8. ZUBIA ETA PASABIDEA

Azken heburua: Zubia aldatzea, Urumea ibaiak Martutenen egiten duen ibilbidean punturik korapiltsuena baita.

Tarteko helburuak:

1. Udalaren eta herritarren artean berehala komunikazio prozesu bat irekitzea gai honen bueltan.
2. Diagnostiko azkar bat egitea, aurretik egindako txosten teknikoak eta auzoko esperientziak ere oinarri hartuta.
3. Zubia aldatzeko proiektu zehatz bat diseinatzea.
4. Proiektua garatzea, herritarren parte-hartzerako konpromezu irmoari jarraituz eta bide emanez.
5. Ondo neurtutako konponbideak bilatzea auzoko eraikinen eta naturaren ondarea gordeko dutenak. Urumeako beste ingurune batzuean burutu diren bezalako panteamendu erasokorrak baztertzeari, beti ere.